

13. NAO - 2016ko urtarrilaren 21a

14. ALDIZKARIA - 2024ko urtarrilaren 18a (6.Art-en, 8Art-en eta tarifaren aldaketa)

21. ORDENANTZA FISKALA, BARAÑAINGO UDALAREN KULTUR ARETO ETA GUNEA ERABILTZeko PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean. Barañaingo Udalaren kultur areto eta gunek erabiltzea da ordenantza honen xedea.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Pertsona fisikoek edo juridikoek, bai eta Udalaren baimena duten erakunde edo entitateek, Udalarenak diren eta Barañaingo Udalaren Kultura Batzordeak bere esku dituen aretoak erabiltzea da zergapeko egintza.

SUBJEKTU PASIBOA

3. artikulua. Prezio publikoaren subjektu pasiboak dira aipatu lokalak erabiltzeko Udalaren baimena duten pertsona fisiko edo juridikoak.

PREZIO PUBLIKOAREN SORRARAZPENA ETA HAREN ORDAINKETA

4. artikulua. Prezio publikoaren sorrarazpena baimena ematen den unean berean gertatzen da eta ordainketa erabilera aurretik eginen da, eta betiere, 24 ordu lehenagotik.

5. artikulua. Barañaingo Udalaren edozein aretotarako, egunen erreserbak ez du baliorik izanen ez bada erreserbatu errentamenduaren zenbatekoaren %25 ordaindu. Ordainketa hori behin betiko likidazioaren kontura eginen da.

Egindako erreserbak deuseztatzeko eskaerak bakar-bakarrik onartuko dira arrazoiak modu sinesgarrian frogatzen badira; idatzita eginen da eskaria eta, betiere, ekitaldiaren data baino 10 egun lehenagotik, gutienez.

6. artikulua. Auditoriumak berriazko arauak izanen ditu erabiltzaileak erreserbari, baliogabetzei eta bestelako zehaztapenei dagokienez bete behar dituen baldintzei dagokienez, bai eta kostuaren salbuespenei dagokienez ere; beraz, ordenantza honen Tarifen Eranskinaren AUDITORIUMA 5. apartatura jo behar da.

ERABILERA

6. artikulua. Baimena ondoko erabilera arau hauei jarraituz emanen da:

1. Barañaingo Udalaren kultur gunek herriaren jabariko eta zerbitzurako udal ondasunak dira, batez ere kultur jardueretan erabiltzekoak, musika, antzerki, eszena, gorputz adierazpen eta

plastika arloetan, eta tarteka, inguruabarren bat dela medio, aipatuez bertzelako jardueratan erabiltzen ahalko dira.

2. Instalazio horren funtzionamenduaren arauketa Barañaingo Udalaren egitekoa da, Kultura Arloaren bitartez.

3. Barañaingo Udalak, Kultura Arloaren bitartez, hartuko du ardura jarduerak ibilarazi, antolatu eta koordinatzen, bai eta instalazioak zaindu eta hobetzen ere.

4. Barañaingo Udalaren kultur guneak erabiltzeko araubide ekonomikoa, Udalak dohainik erabiltzeko baimena ematen dituen kasuak salbu, indarra duten tarifei egokituko zaie eta haiek dagokien ordenantza fiskalean beharko dute agertu. Halaber, antolatzaileak erantzukizun zibileko poliza kontratatu beharko du, egin beharreko ekitaldiaren ondoriozko edozein ustekaberi aurre egin ahal izateko.

5. Barañaingo Udalak kontratuak edo hitzarmenak egiten ahalko ditu partikular edo entitateekin instalazioen erabilera arautzeko, denboraldi luze edo jarraian erabili behar direnean (hiru edo sei hilabetez, denboraldi batez, urte osoan, etab.).

6. Erabiltzaileen kontura izanen dira:

I.–Edozein tasa, kontribuzio edo zerga ordaintzea.

II.–Egile eskubideak ordaintzea, horrelakorik izanez gero.

III.–Administrazioaren permiso eta baimenak.

IV.–Jarduera gauzatzeko behar diren elementuak muntatu eta kentzea, antolamendua Udalarena ez denean, eta betiere, Udaleko langileek edozein unetan ematen dituzten oharrei kasu egin beharko diete.

7. Instalazioen erabilera publikorako orduak Udalak ezarriko ditu Kultura Arloko Eskuordetzaren bitartez, prest dituen udal langileak eta eskaerak zenbat diren begiraturaz.

8. Entitate edo partikularrek instalazioak erabiltzeko baimenak beti egonen dira Udalak antolatu edo babesten dituen jardueren erabileraren menpe.

9. Oro har, instalazioak erabiltzen dituzten entitate edo partikularrek ondoko baldintzok bete beharko dituzte:

I.–Entitate antolatzaile guztiek beren gain hartuko dituzte eskatzen ahal zaizkien erantzukizun zibil, penal, administratibo zein laneko zergei buruzkoak, edo edozein tankeratakoak, eta beren eskutan soilik izanen dira beren erantzukizunak sorrarazten dituen kalte eta galeren ordainak, Udala erabat salbu geldituko delarik.

II.–Entitate antolatzailea behartua dago agintaritzari eta erakunde eskudunei beharrezko diren baimen guztiak eskatzera, egin nahi duen ekitaldirako.

III.– (152. ALDIZKARIA - 2020ko uztailaren 13) Instalazioak erabiltzeko eskaerak hamabost egun lehenagotik bederen aurkeztu beharko dira, Udalaren Herritarrarendako Harrera Bulegoan (HHB). Eskabidean aditzera eman behar dira eskatutako aretoan eginen den jardueraren izaera

eta eduki zehatzak, eta kartelaren zirriborroa erantsi beharko da, baldin publizitatea badauka. Eskatzaileak betiere errespetatuko du lagatako gunearen erabilera, eta ez die inola ere utziko hirugarren batzuei eskatutako gunea erabiltzen, ez osorik, ez zati batean.

Presako kasuak: pertsonak nahiz entitateek Kultur Etxeko lokalak erabili behar izan eta, arrazoi bereziengatik edo halako presa izateagatik, erregelamenduzko tramiteari segitu ez bazaio, beren eskabidea idatziz aurkeztuko dute Kultur Etxean, gutxienez hiru egun lehenago. Eskabide horretan aretoa zertarako nahi duten azalduko dute, baita presaren arrazoia ere.

IV.–Udalak ez du inongo erantzukizunik izanen jendeak egiten dituen gauzengatik, entitate antolatzailearena baita, oso-osorik, erantzukizun hori.

V.–Jarduera buruturik, entitate antolatzailea arduratuko da instalazioak erabiltzeko prest gera daitezen, jarduera hasi zenean zuten egoera berean. Instalazioaren ardura duten langileek ikus-onetsia eman beharko diete.

VI.–Entitate antolatzaileek beren gain hartuko dute instalazioak behar bezala ez erabiltzeagatik egiten diren hondamen edo kalteak konpondu edo ordaintzeko ardura, edozein izanagatik haien arrazoia edo zergatia. Horretarako, Udalak aurkeztuko dio likidazioa, non ez den bera zuzenean egin behar diren konponketen kargu egiten, Udalak hautatzen duen udal teknikariaren zuzendaritzapean, eta horren adostasunarekin.

VII.–Udaleko zerbitzu teknikoek edozein unetan ikuskatzen ahal dituzte jarduera egiteko instalazio osagarrien muntatze eta desmuntatze lanak, eta entitate antolatzaileek horren gainean egiten dizkieten ohar eta jarraibide guztiak onartu eta bete beharko dituzte.

10. Orokorrean, instalazioen barrenean ezin izanen da inongo publizitate eta propagandarik egin, Udalak kasu bakoitzean espresuki baimentzen duena izan ezik.

11. Udalak eskubidea izanen du instalazioetan gaizki portatzen diren pertsona guztiei kargu hartzeko eta are instalazioetatik kanpora bidaltzeko.

12. Erabilera bat baino gehiago edo denboraldi baterako, kontratu edo hitzarmena egiten duten entitateen kide edo partehartzaileek instalazioen erabileran haien portaeragatik istiluak sortu eta instalazioak hondatzen dituztenean, lehenbiziko neurritako, kargu hartu eta gastuen agiria ordaindu beharra ezarriko da.

13. Inguruabarrek eraginda eta aldi baterako, eta Kultura Batzordeak horretarako baimena ematen duen aldi oro, partikularrek Barañaingo Udalaren biltegi-guneak erabiltzen ahalko dituzte, trasteak, tresneria guztia, eszenako materiala, etabar gordetzeko.

14. Ikus-entzunezko baliabideak Udaleko langileek erabiliko dituzte edo entitate antolatzaileak behar bezala kreditaturiko adituek, Udalak bere adostasuna eman ondotik.

15. Kultur Etxean egiten diren jarduera guztietan, edo publizitatea daramatenetan bederen, Udalaren armariaren logotipoa eta Kultur Etxearena ezarri beharko dira, haien entitate laguntzaileak diren aldetik.

16. Udalari dagokio erregelamendu honetan jaso ez diren kasuak erabakitzea, eta zalantzarik sor dezaketen artikuluen azken interpretazioa, Kultura Alorreko eskuordearen bitartez, edo, bertzenaz, ezinbertzean, dagokion udal organoari.

SALBUESPENAK

7. artikulua. Ezartzen diren kuotak ordaintzetik salbu daude ondoko jarduera hauek:

a) Barañaingo Udalak, Musika Patronatuak eta Lagunak Udal zerbitzuak eta Barañaingo Auditorioak antolatzen dituztenak.

b) Ezkontza zibilak izanez gero, Barañainen erroldaturik dauden pertsonak salbuetsirik daude udal guneak erabiltzeagatik tasen ordainketatik.

c) Herrian egoitza duten irabazi asmorik gabeko kultur eta gizarte elkarteek, Nafarroako Gobernuako Elkartearen Erregistroan behar bezala erregistraturik badaude eta Udalarekin lankidetzan aritzen badira.

d) Auditoriuma erabiliz gero, bai Udaleko erakunde autonomoei bai c) apartatuan aipatzen diren elkartei, jasanaraziko zaizkie auditoriuma erabiltzeagatik sortzen diren azpikontratazio teknikoaren eta beharrezkoak diren gainerakoen zuzeneko kostuak. Ordenantza honen Tarifen Eranskinaren AUDITORIUMA 5. apartatuan adierazten da.

Bestalde, hori izanen da Udaleko arloek beren arloari dagokion aurrekontuko partidan jasanarazi beharreko kostua, auditoriuma erabiltzea erabakitzen dutenean.

TARIFAK

8. artikulua.–Lokalak erabiltzeagatik, eranskinetako tarifak aplikatuko dira.

2024KO TARIFEN ERANSKINA

2024ko TARIFA

	Erroldatuak	Erroldatu gabeak
1.1.–Kultur Etxeko erakusketa aretoa.		
–Ordubetez erabiltzeko prezioa	83,00	124,00
–Ordu 1etik gora, 2 ordura arte	101,50	155,00
–2 ordutik gora, 5 ordura arte	124,00	181,00
–5 ordutik gora, 7 ordura arte	145,00	212,00
–7 ordutik gora, 24 ordu arte egun berean	336,00	502,00
1.2.–Kultur Etxeko erabilera anitzeko aretoak (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta		

8. gelak eta erabilera anitzeko aretoa).		
–Ordubetez erabiltzeko prezioa	36,00	52,00
–Ordu 1etik gora, 2 ordura arte	52,00	72,50
–2 ordutik gora, 5 ordura arte	66,00	93,00
–5 ordutik gora, 7 ordura arte	74,00	103,50
–7 ordutik gora, 24 ordu arte egun berean	183,00	253,50
1.3.–Liburutegiko eraikin berriko erabilera anitzeko aretoa.		
–Ordubetez erabiltzeko prezioa	83,00	124,00
–Ordu 1etik gora, 2 ordura arte	101,50	155,00
–2 ordutik gora, 5 ordura arte	124,00	181,00
–5 ordutik gora, 7 ordura arte	145,00	212,00
–7 ordutik gora, 24 ordu arte egun berean	336,00	502,00
2.–Baldin, aldez aurretik erreserba eginik, toki bat erabiltzen bada adostutakoa baino denbora gehiagoz, kobratuko da benetan erabilitako denbora tarteari dagokiona		
3.–Barañaingo Udalaren ikus-entzunezko materiala erabiltzeagatik (proiektorea, diapositibak, telebista, bideoa), betiere zenbateko hau gehitu beharko da antolatzen den saio bakoitzean:	6,80	8,300
4.–Halako material batzuk erabiltzeko, fidantza finkatuko da.		
–Hondaketetarako fidantza:	637,00	953,00
–Garbiketarako fidantza:	637,00	953,00
Barañaingo Udalaren kirol-instalazioak (frontoia eta kiroldegia) kultura xedeetarako erabiltzeko, eskabidea egin beharko da, gutxienez ere 20 egun lehenago, Kultura Etxean.		
Udalaren organo eskudunak instalazioaren erabilera baimenduta, ordainduko da dagokion udal ordenantzak ezartzen duen zenbatekoa, alokairurako, eta fidantza utziko da, konponketetarako, eta beste bat garbiketarako. Fidantzak instalazioen egoera frogatu ondotik itzuliko dira, konponketei eta garbiketei dagokien zenbatekoa kenduta, halakorik egin behar izanez gero.		
Kultur xedeko jarduerak kirol instalazioetan egiten ahalko dira, betiere kirol jarduerarik aurreikusita ez badago.		
5.–Auditoriuma. Auditoriumeko eta agertokiko 2024ko tarifak, pertsona fisiko, enpresa eta antolakundeei aplikatzekoak		
–AUDITORIUMA ETA AGERTOKIA:		
• Auditoriuma, goizeko edo arratsalde-gaueko (1-8 ordu) emanaldi bat (1)	2.142,00	2.389,00

• Auditoriuma, goizeko edo arratsalde-gaueko (1-8 ordu) bi (2) emanaldi	2.472,00	2.719,00
• Auditoriuma, goizeko emanaldi bat (1) eta arratsalde-gaueko emanaldi bat (1) (1-8 ordu)	2.577,00	2.825,00
• Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	123,00	143,00
• Erabiltzaileak alde bakarrez deuseztatzea data/k edo ikuskizuna/k emanaldi(eta)rako	500,00	600,00
• Grabazioetarako auditoriuma, edozein formatutan (1-8 ordu)	1.488,00	1.736,00
• Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	123,00	143,00
• Zinema emanaldi baterako (1) auditoriuma (1-4 ordu)	1.250,00	1.370,00
• Bi (2) zinema emanalditarako (elkarren segidan) auditoriuma (1-8 ordu)	1.950,00	2.200,00
• Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	182,00	203,00
• Bilera baterako (1) auditoriuma, astelehenetik ostegunera, suebaki-oihala jaitsita (1-4 ordu)	554,00	678,00
• Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	79,00	100,00
• Entsegua agertokian, Ekia aretoaren formatuan, astelehenetik ostegunera / suebaki-oihala jaitsita, lan-argiarekin, sabai akustikoekin edo Elation KL PAR-FC fokuekin (1-4 ordu)	529,00	589,00
• Entsegua agertokian, Ekia aretoaren formatuan, astelehenetik igandera / suebaki-oihala jaitsita, lan-argiarekin, sabai akustikoekin edo Elation KL PAR-FC fokuekin (1-8 ordu)	900,00	1.060,00
• Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	88,00	108,00
• Emanaldi baten edo batzuen aurreko muntaketak eta entseguak, astelehenetik ostegunera (1-4 ordu)	895,00	956,00
• Emanaldi baten edo batzuen aurreko muntaketak eta entseguak, ostiraletik igandera (1-8 ordu)	1.401,00	1.561,00
• Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	122,00	142,00
• Bisita gidatua Barañaingo Auditoriumeko agertokira, astelehenetik ostegunera (1 eta 2,5 ordu artean)	319,00	334,00
• Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	40,00	55,00
–ENTSEGU GELAK ETA AMBIGUA, ASTELEHENETIK OSTIRALERA:		

• Entsegu gelak, prezioa / ordua / hilean 1 eta 60 ordu artean erabiltzea	12,00	32,00
• Entsegu gelak, prezioa / ordua / hilean 61 eta 120 ordu artean erabiltzea	11,00	25,00
• Entsegu gelak, prezioa / ordua / hilean 121 ordutik gora erabiliz gero	10,00	18,00
• Entsegu gela 1, prezioa / ordua jarduera bakar baterako egun berean	12,00	32,00
• 2 entsegu gela, prezioa / ordua jarduera bakar baterako egun berean	11,00	25,00
• 3 entsegu gela, prezioa / ordua jarduera bakar baterako egun berean	10,00	18,00
• Ambigu halla, prezioa/ordua	25,00	50,00
• Entsegu gelak, larunbata, igande, hitzartutako itxiera-egunetan eta jaiegunetan: 2,5 ordu	124,00	174,00
• Gutxieneko 2,5 orduen gainean ezarritako gehieneko erabilera gainditzen duen ordu bakoitza	37,00	57,00
<p>Auditoriumaren, agertokiaren, entsegu gelen edo ambiguen erreserba behin betiko finkatuko da, eskatutako premien arabera ezarritako guztizkoaren %25eko aurrerakin baten bidez (itzuliko ez dena), Aulascena formatuarena izan ezik, zeinak bere erregulazio propioa baitu, Ordenantza honetan azaltzen denaren arabera.</p>		
–MATERIALAK ETA BESTE ZERBITZU BATZUK:		
• Aretoko burutza-zerbitzuaren aparteko ordua	25,00	26,00
• Agertokiko laguntzaile-zerbitzuaren aparteko ordua	24,00	25,00
• Garbiketa-zerbitzuaren aparteko ordua	28,00	29,00
• Agertokiko zerbitzu teknikoaren aparteko ordua	35,00	36,00
• Ikuskizunekin zerikusirik ez duten ekitaldietarako errekaru bat aplikatzen da, 2021eko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren arabera	32,15	32,15
• Auditoriumeko pianoa erabiltzea ikuskizun edo entseguetarako (eguneko)	100,00	200,00
• Pianoa afinatzea	204,00	223,00
• Fosoko 1. eta 2. besaulki-ilarak desmuntatzea/muntatzea	480,00	530,00
• Fosa desmuntatzea-muntatzea	1.140,00	1.250,00
• Sotoko biltegia, m ² /hilabete	4,00	8,00
<p>Erabiltzaileak bere kontura eskuratzen ahalko dio sektoreko edozein enpresari Auditoriumaren fitxa teknikoan ez dagoen hornidura teknikoa. Erabiltzaileak eskatzen badu, Auditoriumetik erakundeen kontaktuak ematen ahalko zaizkio bere jarduera garatzeko. Eskatzen diren eta kontuan hartu ez diren beste zerbitzu batzuei buruzko informazioa emanen da, baita horiek gauzatzeko moduari buruzkoa ere.</p>		

2024ko prezio publikoak, Auditoriuma

Barañaingo Udaleko erakunde autonomoei eta herrian egoitza soziala duten irabazi asmorik gabeko elkarte kultural eta sozialek aplikatuak, baldin Nafarroako Gobernuaren erregistroan eta udalarekin elkarlanean diharduten elkarteen udal-erregistroan legez erregistratuak badaude.

AUDITORIUMA ETA AGERTOKIA	ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA ELKARTEEN LAGAPENA
Auditoriuma: goizeko edo arratsalde-gaueko (1-8 ordu) emanaldi bat (1)	1.852,00
Auditoriuma: goizeko edo arratsalde-gaueko (1-8 ordu) bi (2) emanaldi	2.182,00
Auditoriuma: goizeko eta arratsalde-gaueko (1-8 ordu) emanaldi bat (1)	2.287,00
Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	102,00
Sarrerak itzuli behar diren emanaldirako/emanaldietarako data edo ikuskizuna deuseztatzea	370,00
Grabazioetarako auditoriuma, edozein formatutan (1-8 ordu)	1.198,00
Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	102,00
Zinema emanaldi baterako (1) auditoriuma (1-4 ordu)	1.033,00
Bi (2) zinema emanaldietarako (elkarren segidan) auditoriuma (1-8 ordu)	1.681,00
Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	161,00
Bilera baterako (1) auditoriuma, astelehenetik ostegunera, suebaki-oihala jaitsita (1-4 ordu)	389,00
Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	54,00
Entsegua agertokian, Ekia aretoaren formatuan, astelehenetik ostegunera / suebaki-oihala jaitsita, lan-argiarekin, sabai akustikoekin edo Elation KL PAR-FC fokuekin (1-4 ordu)	426,00
Entsegua agertokian, Ekia aretoaren formatuan, astelehenetik igandera / suebaki-oihala jaitsita, lan-argiarekin, sabai akustikoekin edo Elation KL PAR-FC fokuekin (1-8 ordu)	698,00
Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	68,00
Emanaldi baten edo batzuen aurreko muntaketak eta entseguak, astelehenetik ostegunera (1-4 ordu)	792,00
Emanaldi baten edo batzuen aurreko muntaketak eta entseguak, ostiraletik igandera (1-8 ordu)	1.198,00
Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	102,00
Bisita gidatua Barañaingo Auditoriumeko agertokira, astelehenetik ostegunera (1 eta 2,5 ordu artean)	216,00

Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da:	25,00
---	-------

ENTSEGU GELAK ETA AMBIGUA	ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA ELKARTEEN LAGAPENA
Entsegu gelak, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 21:00etara	0,00
Ambigu halla, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 21:00etara:	0,00
Entsegu gelak eta Ambigu halla: larunbatak, igandeak, hitzartutako itxiera-egunak eta jaiegunak: 2,5 ordu	94,00
Gutxieneko 2,5 orduen gainean ezarritako gehieneko erabilera gainditzen duen ordu bakoitza	25,00

Auditoriumaren, agertokiaren, entsegu gelen edo ambiguen erreserba behin betiko finkatuko da, Udalari egindako eskaera baten bidez.

MATERIALAK ETA BESTE ZERBITZU BATZUK	ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA ELKARTEEN LAGAPENA
Aretoko burutza-zerbitzuaren aparteko ordua	25,00
Aretozaintza-zerbitzuaren aparteko ordua	24,00
Garbiketa-zerbitzuaren aparteko ordua	28,00
Agertokiko zerbitzu teknikoaren aparteko ordua	35,00
Agertokiko laguntzaile-zerbitzuaren aparteko ordua	24,00
Ikuskizunekin zerikusirik ez duten ekitaldietarako errekareru bat aplikatzen da, 2021eko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren arabera	32,15
Auditoriumeko pianoa erabiltzea emanaldietarako edo entseguetarako (eguneko)	0,00
Pianoa afinatzea	194,00
Fosoaren gaineko 1. eta 2. besaulki-ilarak desmuntatzea/muntatzea	458,00
Fosoa desmuntatzea/muntatzea	1.086,00
Sotoko biltegia, m ² /hilabete	0,00

Erabiltzaileak bere kontura eskuratzen ahalko dio sektoreko edozein enpresari Auditoriumaren fitxa teknikoan ez dagoen hornidura tekniko. Erabiltzaileak eskatzen badu, Auditoriumetik erakundearen kontaktuak ematen ahalko zaizkio bere jarduerara garatzeko.

Eskatzen diren eta kontuan hartu ez diren beste zerbitzu batzuei buruzko informazioa emanen da, baita horiek gauzatzeko moduari buruzkoa ere.

Hori izanen da Udaleko arloek beren arloari dagokion aurrekontuko partidari jasanarazi beharreko kostua, auditoriuma erabiltzea erabakitzen dutenean.

Erabiltzaile guztientzako oharra.

–Prezio publikoaren indarraldia: prezio publiko hau indarrean jarriko da testu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean (Nafarroako Aldizkari Ofizialean) argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

–Aurrekontuaren baliozkotasuna: aurrekontuek balioko dute 30 egun naturaleko epean, igorri eta antolatzaileari edo erabiltzaileari posta elektronikoz bidaltzen zaizkion egunetik zenbatzen hasita. Aurrekontuetan ohar bat gehituko da horren berri emateko, eta posta elektronikoz bidaliko da instalazioetara sartzeara arautzen duen araudi ez-fiskala.

–Aldez aurreko data, erreserba, erreserbaren indarraldia, egile-eskubideak, eragiketaren itxiera, data(k) edo gertaera(k) deuseztatzea tasaren arabera, eta jardueraren jarraitutasuna etenik gabe.

1. Aldez aurreko data: antolatzaileak edo erabiltzaileak data jakin bat eskatzen du.

2. Erreserba:

2.1. Aldez aurreko data bat eraginkor egiteko eta behin betiko erreserba gisa finkatzeko, antolatzaileak edo erabiltzaileak espazioaren eskaera bat egin beharko du egoitza elektronikoaren bidez edo aurrez aurre Udalaren Herritarrentzako Arreta Bulegoan (HAB).

a) Aurrekontuan sartutako prezio publikoaren %25 ordainduko du aurrerakin gisa. Erreserba baliogabetzen bada, ez da aurrerakin hori itzuliko.

b) Aurrekontua onartzeak eta %25eko aurrerakina ordaintzeak erreserba berretsiko du.

c) Auditoriuma (areto nagusia eta agertokia) erabiltzeko aurrekonturik egin ezin bada, antolatzaileak edo erabiltzaileak honako aurrerakin hau ordainduko du:

–1.500 euro, 1 eta 5 egun bitarteko alokairuetarako, biak barne.

–2.500 euro, 6 eta 10 egun bitarteko alokairuetarako, biak barne.

–3.500 euro, 11 eta 15 egun bitarteko alokairuetarako, biak barne.

–Egun gehiago: bost eguneko multzo bakoitzeko 1.000 euro gehituko dira, aurreko adibideen arabera.

d) Nafarroako udalei, Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako administrazio publikoen mendeko erakundeei dagokienez, Auditoriumeko espazioak erabiltzeko interesa duen erakunde publikoak sinatutako konpromiso baten bidez eginen da erreserba. Erreserba deuseztatzen bada, adierazitako prezio publikoa ordaindu beharko du erakunde antolatzaileak. Eragiketa hori honako hau dioen apartatuan arautzen da: "Erabiltzaileak bere aldetik deuseztatzea emanaldietarako ekitaldiak edo datak".

3. Egile-eskubideak: antolatzaileari edo erabiltzaileari dagokio egile-eskubideak ordaintzea, sortzen direnean.

4. Auditoriuma erabiltzeko eragiketa ixtea: txarteldegiko diru-bilketa jasotzeko, antolatzaileak edo erabiltzaileak egile-eskubideak ordaindu beharko ditu, halakorik sortzen bada, bai eta ordaindu gabe dagoen gainerako prezio publikoa ere.

5. Data(k) edo ikuskizuna(k) deuseztatzea:

5.1. Antolatzaileak edo erabiltzaileak bere aldetik deuseztatzea Auditoriumaren erabilera: erakundeak bere kabuz deuseztatzen badu data, ez da itzuliko prezio publikoaren aurrerakina, eta sarrerak itzultzeko gastuak bere kontura izanen dira. Beraz, behartuta egonen da adierazitako prezio publikoa ordaintzera, eta eragiketa hori arautzen du apartatu honetan: "Erabiltzaileak bere aldetik deuseztatzea data/k edo emanaldia/k".

5.2. Udalak bere aldetik deuseztatzea Auditoriumaren erabilera: Udalak, bere aldetik deuseztatzen badu data, jasotako prezio publikoaren aurrerakina itzuliko da.

5.3. Alokairua deuseztatzea ezinbesteko arrazoiengatik: deuseztatzen bada ezinbesteko arrazoiengatik –pandemiak, taldekideen gaixotasuna (frogagarria bada), uholdeak, lurrikarak

eta abar– ez da fidantza itzuliko, baina eskubidea izanen da beste data bat ezartzeko, bi aldeek adostua (antolatzailea eta Udala). Sarrerak itzultzeko gastuak 370 eurokoak izanen dira, eta antolatzailearen edo erabiltzailearen eta Udalaren artean ordainduko dira, zati berdinetan. Horretarako, erakundeak eragiketa horretarako erabilitako denboraren erdia ordaindu beharko du, hau da, 185 euro.

6. Jarduerarekin jarraitzea etendurarik gabe: jarduera etetea eragiten ez duten akats teknikoak gertatzen badira, erakundeak ezin izanen du inolako kalte-ordainik eskatu jarduera gauzatzen bada, nahiz eta jarduera hasieran aurreikusitakoak baino baliabide tekniko gutxiagorekin egin.

Erantzukizun zibileko aseguru, auditoriumean egiten diren jarduera guztietarako.

7. Antolatzaileak edo erabiltzaileak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, eta Udalaren (Auditorium) arduradun teknikoari posta elektronikoz emanen dio, edo, bestela, eskatutako betekizuna bermatzen duen dokumentu bat bidaliko du.

Auditoriuma eta agertokia erabiltzeko erabiltzaileak finkatzea.

Auditoriuma 8 orduz erabiltzeko erabiltzaileak finkatzea (besaulki-patioa eta agertokia):

8 (01). Urtean behin bakarrik erabilita ez da deskonturik aplikatuko.

9 (02). Urte natural berean bi aldiz erabilita 50 euroko deskontua aplikatuko da.

10 (03). Urte natural berean hiru aldiz erabilita 75 euroko deskontua aplikatuko da.

11 (04). Urte natural berean lau aldiz erabilita 98 euroko deskontua aplikatuko da.

12 (05). Urte natural berean bost aldiz erabilita 123 euroko deskontua aplikatuko da.

13 (06). Urte natural berean sei aldiz erabilita 148 euroko deskontua aplikatuko da.

14 (07). Urte natural berean zazpi aldiz erabilita 173 euroko deskontua aplikatuko da.

15 (08). Urte natural berean zortzi aldiz erabilita 197 euroko deskontua aplikatuko da.

16 (09). Urte natural berean bederatzia aldiz alokatuta 222 euroko deskontua aplikatuko da.

17 (10). Urte natural berean hamar aldiz edo gehiagotan erabilita 247 euroko deskontua aplikatuko da.

Agertokia 4 orduz erabiltzeko erabiltzaileak finkatzea.

18 (01). Urtean behin bakarrik erabilita ez da deskonturik aplikatuko.

19 (02). Urte natural berean bi aldiz erabilita 12 euroko deskontua aplikatuko da.

20 (03). Urte natural berean hiru aldiz erabilita 18 euroko deskontua aplikatuko da.

21 (04). Urte natural berean lau aldiz erabilita 24 euroko deskontua aplikatuko da.

22 (05). Urte natural berean bost aldiz erabilita 30 euroko deskontua aplikatuko da.

23 (06). Urte natural berean sei aldiz erabilita 36 euroko deskontua aplikatuko da.

24 (07). Urte natural berean zazpi aldiz erabilita 42 euroko deskontua aplikatuko da.

25 (08). Urte natural berean zortzi aldiz erabilita 48 euroko deskontua aplikatuko da.

26 (09). Urte natural berean bederatzia aldiz alokatuta 54 euroko deskontua aplikatuko da.

27 (10). Urte natural berean hamar aldiz edo gehiagotan erabilita 60 euroko deskontua aplikatuko da.

Agertokia 8 orduz erabiltzeko erabiltzaileak finkatzea.

28 (01). Urtean behin bakarrik erabilita ez da deskonturik aplikatuko.

29 (02). Urte natural berean bi aldiz erabilita 32 euroko deskontua aplikatuko da.

30 (03). Urte natural berean hiru aldiz erabilita 48 euroko deskontua aplikatuko da.

31 (04). Urte natural berean lau aldiz erabilita 64 euroko deskontua aplikatuko da.

32 (05). Urte natural berean bost aldiz erabilita 80 euroko deskontua aplikatuko da.

33 (06). Urte natural berean sei aldiz erabilita 96 euroko deskontua aplikatuko da.

34 (07). Urte natural berean zazpi aldiz erabilia 112 euroko deskontua aplikatuko da.

35 (08). Urte natural berean zortzi aldiz erabilia 128 euroko deskontua aplikatuko da.

36 (09). Urte natural berean bederatzi aldiz alokatuta 144 euroko deskontua aplikatuko da.

37 (10). Urte natural berean hamar aldiz edo gehiagotan erabilia 160 euroko deskontua aplikatuko da.

Prezio publikoa ordaintzea Aulaescena formaturako.

38. "Aulaescena" formatuaren prezio publikoa ordainduko da hilabete bakoitzeko lehen 5 egunetan, Alkatetzak horretarako emanen duen ebazpenean ezarritako zenbatekoaren arabera, Barañaingo Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan (HAB) edo Udalaren honako banku-kontu honetan diru-sarrera eginez:

ES84 2100 5181 1422 0006 4922

(*) Ikastaroaren jarduera amaitzean, dagokion erregularizazioa egingen da, erabilera-ordu errealen arabera.